

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2552

IRAGARKIA, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baitira errekontza-instalazio handi batzuen ingurumen-baimen integratuen berrikuspen-espeditentak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren arabera (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua), ingurumen-baimen integratua behar da 1. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu edo lekualdatzeko, bai eta funtsean aldatzeko ere.

Ingurumen-baimen integratuaren helburua da atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihesteko baldintzak ezartzea, eta, hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu baten bidez, ingurumena ahalik eta gehien babesteko.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua agintzen du ingurumen-baimen integratuak ofizioz berrikusteko, instalazio baten jardura nagusiari dagozkion teknika erabilgarri onenen (TEO) inguruko ondorioak argitaratzearen ondorioz. 2017ko abuztuaren 17an, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2017ko uztailaren 31ko 2017/1442 Exekuzio Erabakia (EB), zeinaren bidez ezartzen baitira teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak, errekontza-instalazio handietarako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera.

Berrikuspen-prozedura araututa dago aipatutako testu bateginaren 26. artikuluen bidez, eta Industriako Igorpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. eta 15. artikuluen bidez. Prozeduran ezartzen denez, espeditentak gutxienez hogeit egunez jarri behar dira jendurrean.

Horregatik guztiagatik, jendurrean jarri behar dira eranskinean zehaztutako espeditentak, hogeit egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki iritzitako alegazioak edo oharra aurkez daitezten. Espediente horiek ikusgai egongo dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 14a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.

ERANSKINA

ERREKUNTZA-INSTALAZIO HANDI HAUEN ESPEDIENTEAK JARTZEN DIRA
JENDAURREAN

Espedientea	Ingurumeneko baimen integratuaren titularra	Jarduera	Herria/Udalerrria
AAI00003-001	Iberdrola Generación Térmica S. L.	Energia elektrikoa ekoiztea	Santurtzi (Bizkaia)
AAI00009	Bizkaia Energía S. L. U.	Energia elektrikoa ekoiztea	Amorebieta-Etxano (Bizkaia)
AAI00103	Bahía de Bizkaia Electricidad S. L.	Energia elektrikoa ekoiztea	Zierbena (Bizkaia)